

## ARRASATE MUSIKAL PLENORAKO

Arrasate Musikal Arrasateko kulturaren eragile garrantzitsuenetakoa da. Duen ibilbideagatik, duen ikasle eta irakasle kopuruagatik eta aurrera eroaten dituen ekimenengatik merezi du errekonozimendu hori.

Musika irakastea, eskolaz kanpoko jardueren artean garrantzitsuenetakoa da. Musika, gure hezkuntzaren zutabeetako bat izan beharko litzateke eta administrazioaren ardura da ondare hori herritar guztien eskura egotea. Eta ardura horrek finantzaketaren gaia hartzen du bete betean.

Duela urte askotatik hona bada konpromisoa administrazioen artean musika eskolen finantzaketa osatzearena: Udalak 1/3a, Eusko Jaurlaritzak 1/3 eta erabiltzaile edota autofinantzaketaz 1/3a.

Zoritarrez, hau ez da betetzen ari. Azken 11 urteotako datuak aztertu ditu EH BILDUK eta Eusko Jaurlaritza ez da 1/3 horretara iritsi. Are gehiago, urte gehienetan finantzaketaren %20aren bueltan dabil. Udalak, krisi ekonomikoaren urte gogorrenetan ezik, eutsi dio bere %33 horri eta urte batzuetan horren gainetik ere egon da. Eta hau oso garrantzitsua da, Eusko Jaurlaritzaren ordainketak atzeratzen direnean konpromiso batan jartzen baititu Arrasate Musikalen kontuak.

Eta nork ordaintzen du Eusko Jaurlaritzaren konpromiso falta? Ba familiek eta erabiltzaileek, euren finantzaketa karga %40tik gorakoa izan baita urte askoan: urrunago joan gabe 2016an %44koa izan zen.

Arrasateko EH Bilduren ekimenez legebiltzarreko EH BILDU taldeak galdera egin zion Cristina Uriarte hezkuntza sailburuari urrian: ea zergatik ez zuen bere egiten Jaurlaritzak 1/3a betetzearen konpromisoa. Gogoratu nahi dugu, 2013an Arrasateko Udaleko Bozeramale Batzordeak aho batez egin ziola eskaera hori bera Eusko Jaurlaritzari.

Erantzunak ez gintuen ase, are gehiago, dezepzio handia izan zen. Esan ziguten Udal Legea dela eta soilik udal titularitateko eskolekin betetzen dela 1/3aren araua, beste eskolekin diru laguntza arrunten bidea geratzen dela soilik. Horrela nekez iritsiko gara inora, diru laguntza hauek ez baitira inoiz 1/3era iritsiko. Arrasateko herriarekin zuen konpromisoa hautsi du Jaurlaritzak beraz.

Horregatik gogorarazi behar diogu ze garrantzitsua den konpromiso hau betetzea. 100.000€ gehiago pasa tokatzen zaio jartzea Jaurlaritzari eta horrekin gauza asko egin daitezke: esaterako familiek ordaindu behar duten kopurua arindu edota beka sistema bat adostu musika hezkuntza unibertsalagoa izan dadin.

Eta berriz esaten badigute ezetz, uste dugu Arrasateko Udalean hausnartu beharko genukeela Arrasateko Musika Eskola publiko egiteko planteamendua. Etorkizunerako giltzarri izan liteke municipalizazioa aztertzea, bai finantzazioan bai kudeaketan.

Milesker.